

2021eko Maiatzaren 3a

ANIMALIEKIN LAGUNDUTAKO TERAPIA: ANIMALIEN BOTEREA SINTOMA DEPRESIBOEN HOBEKUNTZAN.

LITERATURAREN ERREBISIO KRITIKOA

Gradu Amaierako Lana

EGILEA: Mainer Fernández Ledesma

ZUZENDARIA: Juan Elizondo Pérez de Albeniz.

Hitz-kopurua: 5881.

Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola

2020/2021eko Ikasturtea

Argazkia: Fernández M.
Argitaratu gabeko argazkia.

ESKER ONAK

Nire neskei, 4 urte hauetan gora-behera uneetan hor egoteagatik, eskaini dizkidazuen une zoragarriengatik, batez ere zuri Dana, zugar pertsona ikaragarria aurkitu baitut, eskerrik asko nigan egunero irribarre bat pizteagatik, eman dizkidazun alaitasun momentuengatik. Urte hauetan, altxor batzuk lortu ditut.

Gorkari, nigan sinestearren eta nire burua indartzearen, irrikan nago etorkizunak zer eskainiko digun jakiteko

Juani, buruan neukan ideia errealitate bihurtzen laguntzeagatik, eskainitako eskuragarritasunagatik eta sostenguagatik.

Pandora eta Scott-i egunero etxera heltzean, pozez zoratzegatik.

Eta bereziki Miki-ri, eskerrik asko zure bizitza nire alboan igaro izanagatik, ilunak ziren egun horietan argitasuna oparitzeagatik, edozein pertsonak nahiko lukeen lagunik onena izan zarelako, lan hau zugar oinarrিতa dago. Eskerrik asko animaliak maitatzen erakusteagatik, zauden tokian zaudela, jakin maite zaitudala.

AURKIBIDEAK

LABURPENA.....	3
ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	4
HELBURUA:	9
METODOLOGIA.....	10
BILAKETA ESTRATEGIA:.....	10
ARTIKULUEN AUKERAKETA:	10
BARNERATZE ETA KANPORATZE IRIZPIADEAK:	11
EMAITZAK ETA EZTABAIDAK.....	12
ONDORIOAK ETA EKARPENAK.....	19
LIMITAZIOAK ETA ZAILTASUNAK.....	21
BIBLIOGRAFIA.....	23
ERANSKINAK	26
1. ERANSKINA: “ANIMALIEKIN LAGUNDUTAKO TERAPIA” (NIC 4320)	27
1. ERANSKINA: KONTZEPTU TAULA.....	28
2. ERANSKINA: BILAKETA TAULA.....	31
3. ERANSKINA: FLUXU DIAGRAMA	39
4. ERANSKINA: IRAKURKETA KRITIKOA	40
IKERKETA KUANTITATIBOKO AZTERKETEN IRAKURKETA KRITIKORAKO GIDOIA	40
IKERKETA KUALITATIBOKO AZTERKETEN IRAKURKETA KRITIKORAKO GIDOIA	46
5. ERANSKINA: LABURPEN TAULA	50
6. ERANSKINA: ZUHAITZA KATEGORIALA.....	59
7. ERANSKINA: ESKALAK.....	60
GERIATRIC DEPRESSION SCALE (YESAVAGE)	60
GERIATRIC DEPRESSION SCALE (YESAVAGE): SHORT FORM (GDS-15)	63
CORNELL SCALE FOR DEPRESSION IN DEMENTIA (CSDD)	64
DEMENTIA MOOD ASSESSMENT SCALE (DMAS)	66
QUALID SCALE.....	72
WHOQOL_BREF.....	75

LABURPENA

Espanian bizi itxaropena modu ikusgarrian hasi da. Biztanleriaren zahartzeak, ezgaitasun eta dependentzia nagusiagoa dakar, epe luzeko asistentziaren beharra eraginez.

Izan ere, adindu instituzionalizatueta, depresioak prebalentzia altua dauka, Gaur egun tratamenduaren aukera nagusia, farmako antidepresiboak izaten dira, hauek dakartzaten albo ondorio ugariarekin edota efektu apalarekin.

Literaturak adierazten du animaliekin lagundutako interbentzioek bizi kalitatea eta sintoma depresiboak hobetzen dituela. Gaur egun, geroz eta osasun profesional gehiagok, animali eta gizakien arteko elkar-eragin positiboa aprobeztatzen dute, animali terapia interbentzioak barneratuz pazientearen arreta planean. Gainera, erizainek paper klabea jorratzen dute ALT programen implementazio eta arrakastan.

HELBURUA: Instituzionalizatuak dauden 65 urte baino gehiagoko pertsonetan animaliekin lagundutako terapiaren eraginkortasuna frogatzea, sintoma depresiboen hobekuntzarako.

METODOLOGIA: Helburua finkatu ostean hitz gakoak datu base bakoitzeko lengoia kontrolatura itzuli ziren, Behin hauek eskuratuta zeudela hainbat bilaketa gauzatu ziren lehenik datu baseetan (MEDLINE, EMBASE, PsycINFO, CINAHL eta COCHRANE-n), bigarren eskuzko bilaketa egin zen (Science Direct, Taylor & Francis aldizkarian eta Gerokomo-en), baita RNAOn. Huetan lortutako emaitzetan barneratze eta kanporatze irizpidea konprobatu ostean, 16 artikulua barneratu ziren irakurketa kritikorako. Ez ziren bat ere ez deuseztatu, beraz 16 artikulua erabili ziren helburua justifikatzeko.

EMAITZAK: Ikerketa huetan terapiak bi modutan gauzatzen ziren, taldeka edota banaka. Taldeka gauzatutako artikuluen emaitzen artean, sintoma depresiboen hobekuntzaz gain, txakurrek eragindako emozio eta ingurune positiboak aurkitzen dira, baita katalizatzailer sozial bezala dute boterea. Hala banakako interbentzioek ere sintoma depresiboen hobekuntza adierazi dute, beste hainbat emaitzen artean (irribarreak, bizi kalitatearen hobekuntza eta abar). Orokorrean ikerketen gehiengoak emaitza positiboak erakutsi ditu alderdi honetarako, soilik batean emaitza ez adierazgarriak lortuz..

ONDORIOAK: Terapia hau eraginkorra izatea erakutsi du adindu instituzionalizatueta sintoma depresiboen hobekuntza adieraziz. Gainera ikusi dugu nola terapia honetan erizainak hainbat modutan parte hartu dezakeen, hau erizainaren interbentzioetako bat izanik. Dena den, interesgarria izango litzake interbentzio hau hainbat NANDAtara zabalduko balitz, honen aplikazioa handitzeko

ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Ikuspuntu biologiko batetik, zahartzea, denboran zehar bariedade handiko kalte molekular eta zelularren pilaketaren ondorioa da, non honek, gaitasun fisiko eta psikikoen mailaz mailakako beherakada, gaixotasunen arriskua areagotu eta azkenik heriotza dakarren. Aldaketa hauek ez dira linealak, ezta uniformeak eta beraien lotura adinarekin erlatiboa da(1).

Aldaketa biologikoez gain, zahartzea bizitzako beste egoera batzuei ere atxikitzen zaie, hala nola, jubilazioa, aproposagoak diren etxebizitzetara aldatzea eta bikotekidearen edota lagunen heriotza(1).

Biztanleriaren zahartzea errealitate bat da(2). Gaur egun, mundu biztanleriaren gehiengoak 60 urte edo gehiagoko bizi-itxaropena dauka. 2050. Urterako mundu biztanleriaren 2000 milioi pertsona adin tarte horretan egotea espero da, 900 milioi pertsona gehiago izanik 2015arekin alderatuz. 2008. urtean, datuen arabera, 125 milioi pertsona zeuden 80 urte edo gehiago dituztenak. 2050. urterako adin tarte horretan, mundu mailan 434 milioi pertsona egotea espero da(1).

Spainian bizi itxaropena modu ikusgarrian hazi da XX. mendean zehar, Europako bizi-itxaropenik handiena izanik. Biztanleriaren zahartze honek, ezgaitasun eta dependentzia nagusiago bat dakar, eta epe luzerako asistentziaren beharra eragiten du, horrela jaiotz adinduen erresidentziak(2). Beraz, pertsona nagusien kantitatea areagotzearen ondorioz, datozen urteetan, egoitzetako arretaren eskaera denbora luzera igo egingo da(3). Izan ere, nahiz eta egoitzen zenbakia igo egin den, oraindik ere eskasak dira existitzen den eskaera asetzeko(2).

Instituzionalizazioak, pertsonen, ostatu, eguneroko bizitzako aktibitateak egiteko asistentzia, arreta soziala eta sanitarioa eskaintzen die(2). Zentro gerontologikoen arreta eskaintzen diote gehiengoan, gaixotasun kronikoak eta muga funtzionalak, mental eta sozialak dituzten pertsonen, non beraien eguneroko aktibitate basikoetarako beste pertsona batzuen dependentzia duten egoera(4).

Zentro hauek epe luzerako zainketak eskaintzen dituzte, lehentasunez adin aurreratuko pazienteei, dependentzia fisiko edo psikikoarekin, komorbilitatearekin edota arazo sozialekin(4).

Pertsona adindu bat, adinduen egoitza batera bizitzera joaten denean, askotan beraien bizi kalitatearen okerragotzea ikusten da eta baita eguneroko aktibitate basikoak egiteko dependentziaren areagotzea, adibidez, ibili eta jantzi(3). Kontestu instituzionalak, adinduei, bizitzako alderdi batzuetan galerak izatera eramaten diezaie, depresio egoeretik kalteberatasuna areagotuz(5).

Gogo aldaratearen nahasteek eta, bereziki, depresioak adinduetan, prebalentzia altua daukate, adindu instituzionalizatuetan %30-75 tartekoa izanik, non horietatik %12-20a depresio nagusiagoei dagokie(6).

Depresioa gaixotasun ohikoa da adinduentzako arreta egoitzetan eta morbillitate arriskua, hilkortasun eta bizi kalitate txarra handitzen du(7,8). Sintoma depresiboen prebalentzia altuagoa da adinduentzako epe-luzeko zainketa instituzioetan bizi diren adinduen artean, beraien familiekin bizi direnen artean baino(5).

Depresioa, gogo-aldartearen alterazio bat da, ezaugarri bezala dituenak interes falta plazerra eragiten duten aktibitateengatik, heriotzari buruzko pentsamendu errepikakorrek, lo-ezintasuna edo hipersomnia, nekea edo energia falta, tristura sentsazioa, hutsunea, gauzaeztasuna edo gehiegizko errua besteak beste(9).

Nahiz eta kriterio espezifiko batzuk egon depresioaren diagnostikorako, adinduetan aurkezten diren sintomak ez dira zergatik izan behar gazteetan behatzen direnak. Adinduen kasuan, gerta daiteke "tristurarik gabeko depresioa" bezala azalera, hau da, nahaste depresiboa "gogo-aldarte deprimituaren" gabezia gertatzea, nagusiki zentratuz kezka somatikoetan, aktibitate atsegingarriak gauzatzeko arazoetan, autoestimu murriztuko sentimenduetan, pentsamendu errepikakorretan (rumiativo), baita ezaugarri psikotikoak dituen depresioaren presentzia. Intzidentzia altuenetarikoa duen nahaste psikiatriko da heldu adinduen artean(9).

Hala ere, detekzio eta tratamendu tasak baxuak izaten jarraitzen dute(7). Izan ere, depresioaren diagnostikoa pertsona nagusietan gai konplexua da, akats asko eragiten dituenak, sintomak askotan "normaltzat" hartzen baitira adinduetan, arreta nahikorik ez eskainiz. Gainera, prozesu depresiboak dituzten pazienteak patologia kronikoak izan ohi dituzte eta batzuetan, interpreta daiteke gogo-aldartearen nahastea beraien egoeraren ondorio dela(10). Ikerketek adierazten dute klinikoki esanguratsua den depresioa duten egoiliarren erdiak soilik jasotzen duela tratamendua(7).

Orokorrean, antidepresiboek depresioaren aurkako tratamendu nagusia sortzen duten arren, egoera ugari daude non soilik tratamenduaren efektu apalak lortu diren(10). Psikofarmakoek erabilera oztopatua egon daiteke albo-ondorioengatik, beste gaixotasunetik bateraezintasunengatik eta/edo farmakoekiko elkarrekintzengatik, bizi etapa honetako ezaugarri polifarmakologikoa dela eta. Davison et al.-ek egindako ikerketan beraien ondorioetan islatu zuten nola adinekoentzako zainketa inguruetan, depresioaren aurkako tratamenduan lehen aukera bezala botika antidepresiboak emateak kezka sortzen zuela(7).

Honen harira, interbentzio psikoterapeutikoak, tratamendu farmakologikoarekiko alternatiba bat izan daitezke, edota antidepresiboekiko modu laguntzailean aplikatu daitezke horien erantzuna partziala denean. Adinduetan egin daitezkeen psikoterapia moten artean animaliekin egiten diren terapiak aurkitzen dira(10).

Honi erlazionatuta, literaturak adierazten du animaliekin lagundutako interbentzioek bizi kalitatea, sintoma depresiboak, funtzionamendu kognitiboa, energia maila eta gogo-aldarte hobetzen dituztela, baita mina, tentsioa, antsietatea eta nekea murrizten duela(11).

Hala ere, handituz doan animalien efektu psikosozialei buruzko ikerketez gain, oraindik ere honi buruzko jakituriaren eta honen inplementazioaren arteko arrail handia dago psikosozialki kalteberak diren pertsonen tratamendu edo sostengurako(12).

ANIMALIEKIN LAGUNDUTAKO INTERBENTZIOAK

Fenomeno berdina deskribatzeko termino eta definizio ugari daude, nahasmena sortu dezaketenak(13). Orokorragoa den “Animaliekin lagundutako interbentzio” (ALI) terminoak, bere barne hartzen ditu “Animaliekin lagundutako terapia” (ALT) eta “Animaliekin lagundutako aktibitateak” (ALA) kontzeptuak, non bi hauek modu desberdinean erabiltzen dira osasun zainketa arloan(13,14).

ALT-ak erreferentzia egiten dio helburu batzuegatik bideratutako terapiari, indibidualki diseinatua dagoena paziente baten irizpide eta emaitzak lortzen laguntzeko(14). Animaliak ko-terapeuta bezala jokatzeko dute, ezaugarri espezifikoak betetzen dituzte eta tratamendu prozesuaren parte integral bat dira(15). Orokorrean, osasun profesional baten zuzendaritzapean inplementatzen eta barneratzen dira eta erregulariki berrikusten dira pazientearen helburuak aldatzen diren heinean(13,14). Hauetan hobekuntzak/emaitzak neurtuak eta erregistratuak izaten dira profesionalengatik(16). Ezaugarri gakoak izango lirake, helmuga eta helburu espezifikoak dituztela banako bakoitzarentzat, eta neurtutako aurrerapenak daudela(15).

ALA-k baldintza espezifikoak biltzen dituzten animaliekin gauzatutako aktibitateak dira(15). American Veterinary Medical Association-ek ALA-k honela definitzen dituzte: Dibertimenduzko edo motibaziozko aktibitate informalak dira, non animalia, baimendutako, lizentzia gabeko edo boluntarioa den pertsona batengatik barneratua izan den, pertsona baten bizitzaren dibertsiorako, heziketarako, kalitaterako eta/edo gozamenerako(14). Aktibitateak informalak direnez, flexibilitate eta espontaneotasun puntu batez bereizten dira(15). Interbentzio ez-medikuak bezala erabiltzen dira. Hala ere, onura terapeutikoak eragin diezaioke pazienteari. ALA-k, adinduak estimulatzen eta “kutsadura emozionala” sortzen laguntzen du pertsona adinduen egoitzetan, non banakoari partaidetza sentimendua ematen dion(16). Ezaugarri gakoak izango lirake, helburu espezifikoaren ausentzia, tratamendu emaileak ez daudela behartuak oharrak hartzeri eta bisiten edukiera espontaneoa dela(13).

ALT-tan presente egon beharko litekeen taldea hainbat figuren bitartez osatua dago, hauetako bakoitzak rol espezifiko bat duelarik(17):

- Aditua: Osasun arloko, hezkuntzako edota arlo sozialeko profesional bat da, interbentzioa gidatzen duena. Helburu terapeutikoak ezartzeko kualifikatua dago eta hau izango da terapia diseinatu, aplikatu eta zuzentzen duena, baita markatutako helburuak erregistratzen eta ebaluatzen dituenak. Ez da animalia baten gidaria baina honekin modu koordinatuan lan egiten du(17).

- Teknikaria: Animalia-aren hezkuntzari buruzko ezagutzan eta trebakuntzan formatua dago, honekin batera ALI saioetan parte hartzeko. Duen formakuntzarekin animalia eta gizakiaren arteko elkar eragitea erraztu behar du momentu oro, terapia saioen aurretik, bitartean eta ondoren(17).
- Osasun edo hezkuntza profesionala: Terapiako partaide bakoitzari buruzko informazioa duen pertsona da, terapian parte-hartzen duena, baita aditua eta teknikaria gidatzen duena helburuak lortzeko(17).
- Animalia: Espezifikoki hautatua eta trebatua dago gidariari (teknikariari) laguntzeko sostengu bezala finkatutako helburuak lortzeko eta pazientearen prozesu errehabilitatzailearen parte bezala(17).
- Erabiltzailea edo erabiltzaileen taldea: Landuko diren helburuak erabiltzailearen edo taldearen araberakoak izango dira(17,18).

Animalien erabileraren dokumentazioa bederatzigarren mendetik dator, baserri abereak erabiltzen zirenean pertsonak tratatzeko. Florence Nightingale-ek, maskoten erabilgarritasuna adoretu eta erabili zuen pazienteen tratamenduan, baieztatuz maskota txiki bat “askotan gaixoen lagun oso ona da, kasu kronikoetan bereziki”. Gaur egun, geroz eta osasun profesional gehiagok, animalia eta gizakien arteko elkar-eragin positiboa aprobetxatzen dute, animaliekin lagundutako terapia interbentzioak barneratuz pazientearen arreta planean(16).

Animaliekin egindako terapiak errekurtsu berritzailea suposatzen du, egoera desberdinetan bere erabilera frogatzen duen hainbat ikerketengatik abalatu. Gai honi buruzko adibide ugari daude literaturan, garrantziak direnak honen aplikaziorako osasun mentalaren esparruan(19). Adibidez, eskaini dezaketen onura psikologikoen artean aurki ditzakegu, tristura, bakardade edo ezgaitasun sentimenduaren eta depresioaren murrizketa, antsietate, inpultsibitate eta jokabide arazoaren murrizketa, interakzio sozialen hobekuntza eta sustapena, autoestimua, norberarekiko segurtasun eta konfiantzaren areagotzea, ongizatea, erlaxazioa eta egonkortasun emozionala sustatzen du, eta abar(18).

Animaliarik erabiliena txakurrak dira, beraien hezkuntzarako erraztasuna dela eta. Terapia txakurrek beraien lana egiten dute sudurrarekin laztanduz, besarkatuz eta orokorren beraien gorputza erabilgarri utziz, laztanduak eta besarkatuak izateko(19).

ALT interbentzio erabilgarria bezala aitortua izan zen adinduekin zaharren egoitzetan, dementsia zutenekin barne(19). Animalien zainketaren errutina sinpleak efektu positiboak dakartza, egunerokotasunean estabilitatea ekartzeaz gain, egoera zoritxarretatik ihes egiten laguntzen baitie(20).

“Clasificación de Intervenciones de Enfermería” (NIC) liburuan, animalien erabilera proposatzen duen Interbentzioa (NIC-a) agertzen da “Animaliekin lagundutako terapia (4320)” bezala adieraziz. Honek interbentzioa honela definitzen du “Animalien erabilera berariazkoa, afektua, atentzioa, dibertsio eta erlaxazioa lortzeko”. Modu honetan justifikatuago eta definituago geratzen da erizainaren papera interbentzio hauek pazienteekin erabiltzeko orduan.

Bertan agertzen diren aktibitateen artean honako hauek ditugu: Pazientearen ariketak terapia animaliekin antolatu, pazienteari animaliarekin jolastera, elikatzera eta zaintzera animatu, pazienteei terapia animaliarekin zainketa eta kontaktua erraztu, animaliekiko emozioen adierazpena erraztu, etxeko animaliekin edo beste animaliekin dituzten oroitzapenak eta aurretiko esperientziak konpartitzea erraztu, eta abar(21). (**Eranskina 1:** Animaliekin lagundutako terapia).

Normalean, Txakurrekin lagundutako interbentzioak, indikazio konkretu batzuetarako preskribatzen dira profesional batengatik, hala nola, terapeuta okupazional, fisioterapeuta edo erizain bat. Indikazio orokorrak izango lirateke, egoiliarrak geroz eta antsiatsuago edo deprimituak daudela edo erizainek egoiliarraren bizi-kalitatea hobetu dezakela pertzibitzea(22).

ALT arrakastatsuak, interdisziplinarioak dira eta honek medikuen, erizainen, terapeuten eta ALT boluntarioen talde lana eskatzen du amankomuneko helburua lortzeko. Erizainek eta terapeutek estuki lan egiten dute erregistratutako animalia-eramaile taldeekin pertsonen egoera fisiko, emozional, kognitibo eta jokabidea hobetzeko, animalia-eramaile batzuk osasun-profesionalak izanik. Erizainek, paper klabea jorratzen dute ALT programen inplementazio eta arrakastan(23).

Txakurren bisitak, instituzionalizatuak dauden paziente geriatrikoen egoera psikologikoa hobetzeko erraminta berritzaile izaten bihurtzen hasi dira, depresioarekin erlazionatutako komunikazioa hobetzeko eta bakardadea gutxitzeko duten trebetasunari esker(24).

HELBURUA:

Animaliekin lagundutako terapiak sintoma depresiboak hobetzeko duen eraginkortasuna aztertzea egoitza geriatrikoetan dauden 65 urtetik gorako pertsonetan.

Bestalde, errebisio honetan zehar, erizainak interbentzio hauetan zer paper jokatzen duen eta jokatu dezakeen ikertu nahi da.

METODOLOGIA

BILAKETA ESTRATEGIA:

Lan honetan, lehenik eta behin, helburutik abiatuta, barneratu nahi diren kontzeptu nagusiak hautatu dira beherago azaldu direnak. Behin kontzeptuak definiturik daudela, hauen sinonimoak eta antonimoak (egongo balira) bilatu dira, ondoren hauek ingeles hizkuntzara itzuliz. Ondoren, hauek lengoia kontrolatura pasatu dira eta horretarako, datu base bakoitzean bertako hitz gakoak zeintzuk diren aztertu dira. Behin beraien esan-nahia zein den konprobatuta, lan honetan behar denarekin bat baldin bazetorren aukeratua izan da deskriptore bezala erabiltzeko (**Eranskina 2: Kontzeptu taula**).

Lortutako hitz-gakoekin, "AND" eta "OR" booleanoak erabiliz, hainbat konbinaketa desberdin gauzatu dira, ahalik eta artikulua gehien lortu ahal izateko, bilaketak 2021eko urtarrilaren lehen astera arte eginik. Lehenik datu baseetan gauzatu da bilaketa, hauek, OVID (MEDLINE), EMBASE, PsycINFO, CINAHL, COCHRANE eta CUIDEN izanik. Bestalde COCHRANE-rekin batera ebidentzia maila altuko bilaketa osatuago bihurtzeko RNAO-n ere bilaketa egin da, nahiz eta honetan gaiari buruzko emaitzarik ez lortu (**Eranskina 3: Bilaketa taula**).

Datu baseetatik gain, eskuzko bilaketa ere gauzatu da, horien artean Science Direct, Gerokomos, eta Taylor & Francis Group aldizkarietan (**Eranskina 3: Bilaketa taula**).

ARTIKULUEN AUKERAKETA:

Behin datu base guztietan bilaketak egin direnean, hauetan lortu diren emaitzak aztertu ziren, hau da, artikulua bakoitzaren izenburua eta abstractean oinarrituz, lehen irakurketa bat egin zen eta horietatik helburuari erantzuten ez diotenak, barneratze irizpideak betetzen ez zituztenak, kanporatze irizpideak betetzen zituztenak edota abstract-a irakurgarri ez zituztenak kanporatu ziren (**Eranskinak 3 eta 4: Bilaketa taula eta Fluxu-diagrama**).

Bigarren hasiera batean egokiak ziruditen artikuluen testu osoak eskuratu ziren, non horietatik testu osoan lortzen ez zirenak zuzenean baztertuak izan ziren (**Eranskina 4: Fluxu-diagrama**).

Behin testu osoko artikulua guztiak eskurata, hauen lehen irakurketa bat egin zen eta horietatik helburuari erantzuten ez zutenak, barneratze irizpideak betetzen ez zituztenak edo kanporatze irizpideak betetzen zituztenak kanporatu ziren (**Eranskina 4: Fluxu-diagrama**).

Horrela lehen irakurketa kritikoa egiteko artikulua eskuratu ziren datu baseetatik. Hauei Eskuzko bilaketaren bitartez lortutako artikulua batu behar zaie, non aukeraketa prozesua datu baseetan jarraitutakoaren berdina izan zen (**Eranskina 4: Fluxu-diagrama**).

Aukeratutako artikulua, hautaketaren amaierara heltzeko irakurketa kritikoren txantiloia erabiliz, determinatu zen hauek baliagarriak baldin baziren literaturaren errebisioan barneratzeko.

Kasu honetan, irakurketa kritikoa gauzatu ondoren ez zen artikulurik baztertu (**Eranskina 5: Irakurketa kritikoa**).

Honela guztira 16 artikuluko lortu ziren erabilgarriak direnak helburuari erantzuteko, 14 datu baseetakoak eta 2 eskuzko bilaketaren bitartez lortutakoak.

BARNERATZE ETA KANPORATZE IRIZPIADEAK:

BARNERATZE IRIZPIDEAK:

- Populazioa: Zentro geriatrikoetan edo instituzionalizatuak dauden pertsonak barneratzen dituzten artikuluko barneratuko dira non laginaren adin media 65 urte baino gehiagokoa den, populazio honetan konkretuki aztertu nahi baita interbentzioa.
- Soilik animaliekin egindako interbentzioak tratatzen dituzten artikuluko dira. Baina artikuluko berean, animaliekin egindako interbentzioez gain beste terapiaren bat aipatzen bada, soilik onartuko da terapia bakoitza talde desberdin bakoitzari eskaintzen baldin bazaio, datuak ahalik eta banatuen egoteko eta emaitzak nahasgarriak ez izateko.
- Depresioa edo sintoma depresiboak aztertzen dituzten argitarapenak onartuko dira, baita sintoma depresiboak murrizten dituzten seinaleak adierazten baldin badituzte, hau baita aztertu nahi dena.
- Nahiz eta beherago azaltzen den moduan, robotak kanporatuak egon, artikuluko berean robot animalien eta benetako animalien arteko eraginkortasuna konparatzen bada talde desberdinen artean, hau da, talde bakoitzari hauetako bakarra eskainiz, eta datuak ondo banatuak baldin badaude, orduan onartuak izango dira.
- Literaturaren errebisioa ahalik eta gaurkotuen izateko, argitaratze datarik zaharrenak 2010. urtekoak izango dira.
- Hizkuntzari dagokionez, soilik erraztasunez maneiatzen diren hizkuntzak barneratuko dira, hauek Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez idatzitako artikuluko izanik.

KANPORATZE IRIZPIDEAK:

- Robot animaliekin edo robotekin bakarrik eginda dauden interbentzioak baztertu dira, helburua baita benetako animalien eraginkortasuna frogatzea.
- Errebisioak kanporatuak izango dira. Izan ere eskuragarri dagoen literaturaren urritasuna dela eta, errebisio gehienak, helburuari erantzuteko lortutako entseguez osatuak daude eta hau informazioa errepikatzea izango litzake. Gainera ikerketa ez errepikatuak erabiltzen dituzten errebisioak, orokorrean 2010 baino lehenago argitaratutako artikuluko erabiltzen dituzte, eta honek literaturaren errebisio honen gaurkotasuna baldintzatuko luke.

EMAITZAK ETA EZTABAIDAK

Datu base eta aldizkari desberdinetan, helburuari erantzuteko hitz gakoekin hainbat konbinaketa egin eta lortutako artikuluek barneratze eta kanporatze irizpideak betetzen zituztela konprobatu ondoren, 16 artikulua hautatu dira helburuari erantzuteko.

Lehen aipatu bezala, Animaliekin lagundutako terapiak, adineko instituzionalizatuen egoera psikologikoa hobetzeko erraminta bat izan daiteke, lan honen helburua sintoma depresiboa hobetzeko duen eraginkortasuna, baldintza horietan frogatzea izanik.

Hautatutako artikulua, lehenik eta behin animalia mota desberdinetan multzokatu nahi izan ziren, hauetako bakoitzak duen efektu desberdina aztertzeko. Kasu honetan, artikulua guztiek txakurra erabili zuten terapia animalia moduan, izan ere, lehen aipatu bezala, txakurrak izaten dira animaliarik aukeratuenak aurkezten dituzten ezaugarriengatik.

Lan honetarako aukeratutako entseguen artean 15 artikulua kuantitatibo eta kualitatibo 1 aurkitzen dira. Lehenengo multzoan gehienek, eskalaren bat erabiliz edota jokabideen errepikapena bideo-kameraren bitartez analizatuz, ebaluatu zuten partaideen erantzuna terapiarekiko. Ikerketa kuantitatiboetan emaitza neurgarriak egon harren, datu subjektiboaren presentzia ere agertzen da hauetako askotan, interesgarriak direnak helburua frogatzeko. Aldiz, ikerketa kualitatiboa erizain eta txakur-eramaileei entrebista eginez lortu zen informazioa.

Interbentzioetan aurkitutako desberdintasun nabari bat taldekako interbentzioak edo banaka gauzatutakoak diren izan da, beraien artean onura desberdinak eskaini ditzakeenak, hala nola, egoiliarren arteko sozializazioa.

TALDEKAKO INTERBENTZIOAK

Hasteko, taldeka gauzatutako interbentzioari buruz hitz egiten duten bi artikulua aurkitzen ditugu, Olsen C et al.-ek gauzatuak, non interbentzio berdina erabili zuten hainbat aspektu analizatzeko. 12 asteko interbentzio honetan, animaliekin lagundutako aktibitateak jaso zituen taldea zegoen, baita ohiko zainketak jasotzen zituen beste talde bat kontrol bezala. Lehenengoek 30 minutuko saioak jasotzen zituen astean bi aldiz, kontrol taldeak ohiko zainketez gain ezer berririk egiten zuen bitartean (25,26).

Entseguaren lehen atalean, egindako neurketetan ikusi zuten nola T0-tik T1-era lortutako efektua ez zela esanguratsua izan baina interbentzio taldean, aktibitatearekin hasi eta 6 hilabetetara egindako neurketan Cornell Scale for Depression in Dementia-n (CSDD) **beherakada esanguratsua** erregistratu zen, **depresioaren hobekuntza** adierazten duena ($P=0.037$), kontrol taldean igoera egonik. Gainera demenzia larria zuten pazienteen artean, interbentzioaren **efektua esanguratsua** aurkitu zuten **bizi kalitatean** T0-T1 zein T1-T2 tartetan ($p=0.003$). Animalia

taldeak, QUALID eskalan puntuazio beherakada izan zuen, bizi kalitatean hobekuntza adieraziz, kontrol taldean igoera ematen zen bitartean, kalitate okerragotzearen esanahiarekin(25).

Ikerketa honen beste atalean, adineko egoitzetako egoiliarrekin zein eguneko zentroko erabiltzaileekin gauzatu zen interbentzioa. Jokabideak bideo grabaketan bitartez jaso zituzten eta ohartu ziren nola parte-hartzaileen denboraren %20-30 artean **irribarre** egiten dirau zutela. Baita nabaria izan zen partaideen jokaera ohikoenak txakurrari zuzenduak egon zirela edo beste pertsona batzuei. Lortutako balioen mediak adierazi zuen txakurrekin erlazonatutako aktibitateak iraupen gehien izandako jokabideak izan zirela (**begiratu, irribarre egin, txakurrarekin hitz egin edo laztandu**)(26).

Talde aktibitate hauetan, txakurrak, **katalizatzaile sozial** bezala jokatzeko du, parte-hartzaileek beste batzuei begiratzea, irribarre egitea eta hitz egitea eraginez. Gainera talde aktibitateek **parte-hartze sentimendua** sortu zuten eta taldeak partaideentzat **ingurune segurua** errepresentatu du, **indarra** areagotuz, baita **inspirazioa** eta **alaitasuna**. Bi taldeen arteko desberdintasun bezala, egoitzakoek denbora gutxiago igaro zuten irribarre/barrezka eta denbora gehiago lotan eguneko zentrokoekin alderatuz. Datu hauek ikerketaren lehen atalekoekin batuz, adierazten dute ALA-k demenzia larria duten egoiliarren sintoma depresiboetan efektua daukala(26).

Friedmann E et al.-ek ere bideokamerak erabili zituzten datuak jasotzeko metodo bezala. 60-90 minutuko saioetan, analisiek adierazi zuten **txakurrari begiratzen** zuten parte-hartzaileek (Look x month) **depresioan hobekuntza** esanguratsuak lortu zutela ($p=0.007$), txakurra zenbat eta gehiago begiratu, hobekuntza handiagoa lortuz depresioan. Txakurrari begiratzearen jokabidea, parte hartzaileen %100ak egin zuen behintzat behin hileko saioetan, aldagarritasun gutxieneko jokabidea izanik. Gainera, hileko saioetan, txakurra “ukitu” ($p=0.073$), “orraztu” ($p=0.052$) edo “sariak eman” ($P=0.053$) zituen parte-hartzaileen ehunekoak, depresioan hobekuntzak iragarri zituen(27).

Emitza hauen arrazoia oxitozinaren eta begiraden arteko erlazioa izan daiteke. Ikerketa batzuek adierazten dute txakurrak bere jabeari begiratzen dionean, jabeak **oxitozinaren areagotzea** esperimentatzen duela gernuan(27).

Friedmann E et al.-ek 2015.urtean, taldean egindako animaliekin lagundutako terapiari buruzko beste ikerketa bat gauzatu zuten, kasu honetan depresioan emandako alaketak CSDD bitartez neurtuz. Kasu honetan talde kontrolak gogoratze (“reminiscing”) terapia jaso zuen, animalia terapia taldeak gauzatzen zuen ordutegi berdina jarraituz. Terapia hauetako partaideen erdiak depresioaren diagnostikoa aurkeztu zuten eta %62,5-ak depresio posiblearen irizpideak betetzen zituen(28).

Kasu honetan, interbentzio amaieran, hau da, hasieratik 3 hilabetetara Animalia taldean **depresio tasak eta depresio** puntuazio **mediak** esanguratsuki **txikiagoak** izan ziren ($p=0.013$), reminiscing taldean alaketak ez esanguratsuak ziren bitartean. Ikertzaileen aditzera, Animaliekin ibiltzea barneratzen duen terapiak, depresioaren eta aktibitate fisikoaren arteko erlazioa

ebaluatea ahalbidetuko luke(28). Izan ere, hori izan zen Grubbs et al-ek egindakoa, animaliekin lagundutako terapia barneratu baitzuten 6 asteko ariketa programa batean(29).

Terapia honetan bi taldeek ariketa programa jarraitu zuten taldeka baina interbentzio taldean txakurra barneratu zuten. Parte hartzaileetan depresioa Geriatric Depression Scale (GDS-S) bitartez ebaluatu zuten eta bizi kalitatea WHOQOL-BREF-rekin. Nahiz eta parte hartzaileak hasiera batean deprimituak bezala ez sailkatu **beherakada esanguratsua** eman zen ($p \leq .05$), baina ikerlariak ez dute zehazten zein taldetan eman zen aldaketa hau. Aldiz, ez ziren aldaketa esanguratsuak eman WHOQOL-BREF puntuaziorako(29).

Ikusi zuten nola denbora efektu esanguratsua egon zela depresio puntuazioetarako, iradokiz ariketa fisikoak gogo-aldartean eragin positiboa duela. Gainera **animaliekin** lagundutako terapia barneratzen duen ariketa fisikoak, adinduetan **ariketa fisikoaren** mailak **areagotzera** animatzen die(29).

Berry et al-ek txakurrekin egindako ariketa fisikoaren eta sozializazio saioak, txakur gabe egindakoekin alderatu zituzten, non hauek erizain baten presentzian egiten ziren, hau entseguren figura garrantzitsu bat izanik. Interbentzioak bidez grabatuak izan ziren, lehen bezala partaideen jokabideak baloratzeko. Bideo kameraz gain, honetan ere GDS eskala erabili zuten(24).

Interbentzioetan, elkar eragite ugari eman ziren. Partaideek denbora berdina elkar eragin zuten txakur zein gizakiekin. Hala ere, **jolas denboran**, partaideek esanguratsuki denbora **gehiago** igaro zuten **txakurrekin**. Denborarekin txakurrekin emandako elkar eragitea aldatu egin zen, izan ere Otsailetik Ekainera txakurrekiko interakzio espontaneoak esanguratsuki gora egin zuten ($p < 0.01$) zuzendutakoak gutxitzen ziren bitartean. Kontaktuzko aktibitateetan eta jolasetan zehar ($P = 0.0005$; $p = 0.0052$), **txakurrekin espontaneoki aritzerakoan**, pazienteek **esanguratsuki gehiagotan** egin zuten **irribarre**, zuzendutako edo gizaki interakzioetan baino. Terapia fisikoan, irribarre gehiago egon ziren zuzendutako txakur interakzioetan (gehiago jolas aktibitateetan $p = 0.0001$)(24).

ANOVA-k aditzera eman zuen animaliekin egindako sozializazio eta ariketa taldeetan, **depresio** egoera **baxuagoa** eman zela kontrolekin alderatuz ($p = 0.0212$). Hala ere, bitxia dirudi aurkezten dituzten datuekin kontraesan egiten direla, beraiek ondoren adierazten baitute GDS eskalan ez dutela ezberdintasunik lortu animalia interbentzioen ondorio bezala(24).

Italian egindako Moretti et al.-en ikerketak ere 15 item-eko GDS eskala erabili zuen depresioan aldaketak neurtzeko, 21 pertsonako laginetik soilik 4 partaideetan aztertuz animalia terapiaren efektua depresioan(30).

Ikusi zuten nola gogo aldaratearen nahasteetan, **GDS-n hobekuntza** egon zela bai talde kontrol zein interbentzioan. Maskota taldean, **sintomen %50eko beharakada** eman zen, talde barruan ezberdintasun esanguratsua emanez ($p = 0.013$), eta aldiz bi taldeen arteko desberdintasuna $p = 0.070$ izanik. Maskota taldeko 5 partaidetan **bizi kalitatearen** norberaren pertzepzioan **efektu**

positiboa ikusi zen. Gogobetetze inkestan guztiek esperientzia **gozagarria eta interesgarria** izan zela aipatu zuten, guztiek adieraziz beste pertsona batzuei gomendatuko zietela. 10 pertsonatik 9-k adierazten zuten animaliek efektu **lasagarria** zutela eta subjektu batek iraganeko **oroitzapenak berreskuratu** zituen. Azkenik, partaideen %80ak esperientziarekin jarraitu nahi zuen(30).

Antzeko interbentzio metodoa aplikatuz eta GDS eskala erabilitako ohikoena izanik, Sollami et al.-ek ere **ezberdintasun esanguratsuak** lortu zituzten bai honetan ($p=0.036$) zein QUALID eskalan, QUALID_depression atalean $p=0.001$ izanik. Gainera, talde experimental zein kontrolen medien arteko konparaketa egitean, eskala guztien artean ezberdintasun esanguratsuak ageri ziren, horien artean GDS eta QUALID eskaletan, **bizi kalitate hobe** eta **depresio txikiagoa** adieraziz animalia taldean(31).

Olsen C et al.-ek ondorioztatu bezala, txakurraren presentziak **aktibitate sozialak errazten** ditu, **katalizatzaile** bezala jokatu. Adinduek atsegin izan zuten interbentzioa, **estimulatuak** egon ziren eta benetan gozatu zuten animaliarekin tratatzea joko fasean, baita zainketa aktibitateetan, taldean **kontagio emozionala** eraginez. Txakurrekin lagundutako terapia, **erizaintzako errekurtsu** bat bezala kontsideratu daiteke, pazienteei zainketa eraginkorrakoak emateko erabilia(31).

Erizainen eta txakur eramaileen ikuspegia nagusiki lantzen dute Gundersen eta Johannessen-ek beraien ikerketa kualitatiboan non hauek 4 egoitza geriatrikoetan animaliak, txakurrak kasu honetan, barneratu zituzten(32).

Alde batetik txakur eramaileek pazienteetan nabaritutako onuren artean, egoiliarrek txakurra ikustean adierazten zuten **poztasuna** aurkitzen da, egoiliar batzuek txakurraren izena gogoratzen zutelarik aurreko saioetatik. Egoiliar askorentzat txakurrarekin **kontaktua** izatea, maskota **besarkatzeko aukera** bat zen. Txakur-eramaileen ustez emaitza positiboak ikusiz, kontsideratu zuten egoitza geriatrikoek txakur terapiak barneratu beharko lituzketela. Horietako batek adierazten zuen *“Askotan egoitzara joatean egoiliarrak triste, deprimituak daude, baina bertan gaudenean dena ondo dago”*(32).

Bestalde, erizainek ikusi zuten nola ALI-ek ingurune positiboa sortarazi zuela eta egoiliarrak estimulatu zituela hainbat modu positibotan. Nabaritu zuten nola egoiliarrak **alaiago** zeudela eta batzuk egun horretan **lasai** zeudela. Erizainek adierazi zuten nola egoiliarrak **emozio positiboak eta irrika** erakusten zutela hurrengo saioa egongo zela esaten zutenean. Emaitza positiboak ere ikusi zituzten narriadura kognitiboa zuten pazienteetan **momentu atseginak** eskainiz. Ikerketak frogatu zuen emaitza positiboak lortu zirela egoiliarren humore, interakzio-sozial eta jokabideetan(32).

Wesenber S et al.-ek ere frogatu zuten, bideo kameraren bitartez nola **kontaktu fisikoa** esanguratsua izan zen animalia taldean, batez ere **txakur-egoiliarren** artean ematen dena ($p<0.001$) egondako denbora neurketa guztietan. Gorputz mugimenduak ere esanguratsuki

gehiago eta luzeagoak izan ziren ALI taldean kontrol taldean baino ($p < 0.001$), txakurrek egoiliarretan estimulazio gehiago eragiten dutela adierazi dezakenak(33).

Begiradak txakur taldean gehiago zuzendu ziren maskotari, kontrol taldean interbentzio zuzendariari bideratzen ziren bitartean, baina hauetan ez ziren ezberdintasun esanguratsuak ageri. Aldiz, **komunikazioa** bai **esanguratsuki luzeagoa** izan zela maskota taldean, txakur-eramaile eta partaideen artean, animaliak lehenago adierazi bezala katalizatzaile sozialak izan baitaitezke eta hitz egiteko gai bat ere(33).

Bi interbentzioetan **emozio negatiboak** partaideen **gutxienean** ikusi ziren, **emozio positiboak nagusiak** izanik bi taldeetan. **Plazerrean** ordea, nabariagoa izan zen animali taldean, bi taldeen arteko ezberdintasun esanguratsua egonik. Hala ere, ikerketa honetan bi interbentzioek ongizatea areagotu zuten parte-hartzaileetan(33).

Aurreko artikuluek ez bezala, Baun MM et al.-ek egindako taldeko interbentzioan ez zituzten emaitza esanguratsurik lortu txakur interbentziorako. Honetan txakurrekin lagundutako interbentzioen eraginkortasuna frogatu nahi izan zuten, gizaki interbentzioko talde batekin eta ohiko zainketak jasotzen zutenekin alderatuz. Txakur taldeak **ez zituen aldaketa esanguratsurik izan**, hala ere, emaitzak **esperotako norabidea jarraitu** zuten (bakardade, tentsio, depresio, haserre eta konfusio gutxiago). Hala ere autoreek dioten bezala bi taldeen arteko ezberdintasun esanguratsuen gabeziak konparazio gehiagoren beharra eskatzen du. Dena den, txakur interbentzioko taldekoek adierazi zuten txakurrekin egotea **dibertigarria** eta **gozagarria** zela, **animatu** egiten zirela eta **zerbait egiteko** zutela horrela(34).

BANAKAKO INTERBENTZIOAK:

Bestalde, zuhaitz kategorialaren egiturari jarraituz, banaka gauzatutako animaliekin lagundutako interbentzioak aurkitzen ditugu:

Espanian gauzatutako animaliekin lagundutako terapiari buruzko entsegu bakarra Folch A et al.-ek gauzatutakoa da, non hauek terapia egoiliar bakoitzarekin banaka gauzatu zituzten. Terapia honetan partaide bakoitzak zirkuitu eta ariketa batzuk gauzatu behar zituzten animaliarekin eta depresioaren egora aldaketak YESAVAGE eskalaren bitartez ebaluatu ziren. Interbentzioen ostean, **sintoma depresiboan hobekuntza** eman zen Yesavage eskalan $p=0.031$ -koa izanik(35).

GDS eskala erabilienera izanik sintoma depresiboak ebaluatzeko, Ambrosi C et al.-ek 30 minutuz partaide bakoitzari eskainitako terapiaren bitartez **ezberdintasun esanguratsuak** lortu zituzten, ALT egin ondoren **sintoma depresiboan beharokada** %33,5-ekoa izanik, ondorioztaturik, txakurrekin lagundutako terapia eraginkorra zela sintoma depresiboak murrizteko(36).

Kontran Thodberg K et al.-ek egindako ikerketa daukagu emaitza ez esanguratsuak lortu zituenak txakur bisitentzako. Ikerketa horretan bisitak 10 minutuko iraupena zuten, partaide bakoitzari interbentzio desberdina eskainiz, animalia baten bisita, animalia errobotikoa edo pelutxe bat(37).

Denbora esperimentalean zehar, **GDS eskalan puntuazioak behera** egin zuten ($p < 0.05$) baina interbentzioak amaitu eta astebete geroagoko neurketan ikusi zuten interbentzio motek ez zutela eraginik izan GDS eskalan ($p > 0.05$)(37). Ondorioztatu zuten txakur bisitak **ez** zutela **eraginik** izan **depresio** neurrietan. Hala ere, emaitzek adierazten dute txakur bisitek egoiliarren **komunikazio eta ukipen-estimulazio beharrak asetzen** dituztela, bizi kalitatea handiagotuz(37).

Kasu honetan, bisiten intentsitatea baxua izan zen, eta agian interakzio gehiagoko bisitak efektua izan dezakete. Gainera, bisiten iraupen laburra izan zen (10min), beraz ezin dute ondorioztatu bisita luzeagoek efekturik izan ez dezaketarik. Nahiz eta epe-luzeko ondorioak ez egon, agian epe-motzeko ondorioak egon litezke txakur bisiten erabilera justifikatzen dituztenak egoitza geriatrikoetan(37).

Kårefjård A. eta Nordgren L.-ek aldiz, QUALID eskala erabili zuten animaliekin lagundutako interbentzioen bitartez bizi kalitatean lortzen zuten aldaketak ebaluatzeko. Hauek **hobekuntza esanguratsuak** lortu zituzten **bizi kalitatean**, batez ere **irribarreentzako**. Ikerketa honetan ezberdintasun **esanguratsuak** aurkitu ziren **tristura adierazleentzako**, sintoma horien beharakada adieraziz, hasiera neurketatik post-test 1.neurketararte. Emaitza hauek erlazio positiboa adierazi zuten ALI eta bizi kalitatearen artean demenzia moderatu-larria duten egoiliarrentzat(22).

Majic et al.-ek ere **ez** zuten **emaitza esanguratsuak** aurkitu sintoma depresiboen hobekuntzarako baina bai hauen areagotzea moteltzeko edota gelditzeko. **Tratamenduan zehar**, tratamendu taldean emaitzak **esanguratsuak** izan ziren sintoma depresiboetarako Dementia Mood Assessment Scale-n (DMAS $p < 0.001$). Tratamenduaren ostean aldiz, ez ziren ezberdintasun esanguratsurik aurkitu tratamendu taldean DMAS-eko puntuazioetarako, hasierako eta amaierako puntuazioak konparatuz ($p = 0.069$). Hala ere, ohiko tratamendua jaso zutenen puntuazioak igo egin ziren. Emaitza hauek iradoki dezakete, animaliekin lagundutako terapiak, ohiko tratamenduarekin konbinatuta, agitazio eta **depresio sintomak konstante** mantentzen dituela, sintomen estadio okerragoak garatzea galaraziz(38). Beraz kasu honetan emaitza esanguratsuak egon ez arren positiboak izan ziren.

Erizaintzari dagokionez, helburuetan aipatu bezala erizainak zer paper jokatu duen aztertu nahi zen. Ikerketa hauetan gutxienean aipatu bada ere, erizainari buruzko aipamen batzuk aurkitzen ditugu. Kasu batzuetan ikerlariak ziren, hauek izanik bisitak antolatzen dituztenak edota txakur eramaileak ziren(22,32). Hauetako batzuek adierazten dute nola erizainak lehenik eta behin egoiliarren egoera ebaluatzen duen eta honek ondoren ikerketetan neurketak egiten zituela(27,32).

Batzuen aditzera, erizainaren zeregina da jakitea noiz eta nola den beharrezkoa animaliekin lagundutako aktibitateak proposatzea (eta inoiz ez inposatzea) eta aktibitateen eraginkortasuna

ebaluatzea(31). Terapia ezartzeko, erizainek, helburu final eta bitartekoak identifikatu beharko lituzke hauen kontrol jarraituak gauzatzeko, eraginkortasunaren neurketa konstantea egin, baita zikloan zehar lortzen diren emaitzak eta arazoak kontrolatu(32).

Ambrosi C et al.-ek adierazi zuten nola erizaina taldearen parte dela, eta Sollami A et al.-en aditzera ALT-ak ez dio soilik erreferentzia egiten animaliarekin lagundutako aktibitateei, baizik eta talde baten lanari, non honetan barne sartzen diren animalia, saio zuzendaria eta baita erizaina(31,36).

Gainera erizainak rol garrantzitsua jokatzen du bideratzaile bezala, hauek baitira egoiliarren erantzule. Gundersen ED et al.-ek beraien ikerketan adierazten zuten nola erizainen presentziak lasaitasuna eta segurtasuna ematen zietela egoiliarrei(32).

Talde interbentzioak	Banakako interbentzioak
- Depresioaren hobekuntza	- Sintoma depresiboen hobekuntza
- Bizi kalitatea hobetu	- Depresio sintomak konstante mantendu
- Katalizatzaile soziala: Aktibitate sozialak erraztu, komunikazioa hobetu, txakurrarekin hitz egin, taldean kutsadura emozionala, ingurune positiboa.	- Eraginik ez depresioan
- Emozio positiboak: Alaitasuna, poztasuna, irrika.	- Bizi kalitatea areagotu
- Plazerra, gozamena, irribarreak.	- Komunikazio eta ukipen asetu
- Kontaktu fisikoa areagotu, laztandu.	- Irribarreak
- Ariketa fisikoa egitera animatu.	- Tristura gutxiago.
- Begiradak→Oxitozina areagotu.	
- Estimulatu, oroitzapenak berreskuratu, inspiratu.	
- Indarra eman.	

Emaitzen laburpen taula (Iturria: Eraketa propioa).

ONDORIOAK ETA EKARPENAK

Adinduen instituzionalizazioak, atentzio faltak, isolamenduak, rolaren galerak, gaixotasunak, funtzionaltasunaren narriadurak eta beste hainbat faktoreek, instituzionalizatuak dauden adinduetan depresioa edota sintoma depresiboen agerpena eragin dezake bizi kalitatearen narriadura garrantzitsua eraginez.

Esan bezala, gaur egun erabiltzen den tratamendu farmakologiko nagusia antidepresiboak dira, kasu askotan hauen eraginkortasun eskasa edota nulua lortuz eta albo-ondorioen agerpena arriskatuz(10). Terapia osagarrien erabilerak, kasu honetan, animaliekin lagundutako terapiak, erraminta interesgarri eta eraginkorra izan daiteke sintoma depresiboen hobekuntza lortzerako orduan, lehen ikusitako emaitzetan oinarrituz. Nahiz eta guztiek emaitza eztabaidaekin ez lortu, hauetako gehiengoek emaitza positiboak lortu dituzte, sintoma depresiboak hobetzen dituztela adieraziz edo kasuetako batean hauen areagotzea gelditzen dutela erakutsiz. Gainera parte-hartzaileen artean plazerra, irribarreak, alaitasuna, lasaitasuna, irrika eta beste hainbat bizi kalitatearen hobekuntza erakusten duten adierazleak ikusi ziren, egoiliarren artean ingurune positiboak sortuz.

Kontutan izan behar dugu ere interbentzio guztiak ez zituztela baldintza berdinak betetzen, aktibitate ezberdinez gain, taldean gauzatutakoak edota banakako interbentzioak ziren, onura desberdinak eskainiz egoiliarrei, adibidez talde interbentzioek sozializazioa errazten dute, talde partaidetza sentimendua areagotuz. Aldiz, banakakoek partaide bakoitzean askoz ere gehiago zentratzeko aukera ematen dute. Interbentzioen arteko uniformetasun faltaz gain, neurketa denborak desberdinak ziren batzuk epe luzeko emaitzak adierazi nahian eta beste batzuk epe motzekoak, hauen emaitzetan eraginez, agian interbentzio berdinek saioak amaitu bezain laster efektuak erakutsi baidatzakete baina ez epe luzera edo ez horren esanguratsuak.

Gainera, interbentzio hauek ez dira mundu guztiarentzat egokiak, aldeztatik konprobatu behar baitira egoiliarren alergiak edota patologiak, baita animaliarekin elkar eragiteko duten nahia, hauekiko beldur sentimenduak ager baitaitezke.

Animaliek sintoma depresiboak hobetzen dituzten fenomenoak hainbat arrazoen ondorioa izan daiteke, adibidez, oxitozinaren areagotzearen ondorioz. Oxitozinak, antidepresiboen antzeko efektua dauka, beldurrarekiko erantzunak murrizten ditu eta orokorrean, emozio sozialak hobetzen ditu. Hau, pertsonak txakurrekin kontaktua dutenean askatzen da eta teoria hau ALI-k dituen onurentzako azalpen posible bezala aldarrikatua izan da(27).

Terapia honi buruz lortutako informazio gehiena atzeritik dator, Espainian egindako entsegu bakarra aurkituz. Kontutan izan behar dugu herrialde bakoitzak berezko kultura daukala eta hauen barnean animaliek esan nahi propioa izan dezaketela bertako biztanleentzat, are gehiago, herrialde bereko biztanle desberdinentzat animali berak ez dizkie sentimendu berdinak sorraraziko, adibidez, etxean txakur bat izan duen pertsonak, familiako kide bezala kontsideratu

dezake eta aldiz, artzain lanetan ibili den pertsonak lan erraminta bat bezala. Beraz, terapia berdinak emaitza desberdinak izan ditzake kulturaren edota pertsonaren izaeraren arabera.

Kulturarekin jarraituz, aipatu bezala Espainian honen aplikazioari buruzko informazio eskasa lortu da. Izan ere terapia honen ezarpena eta burutzea erraza izan arren, denbora eta profesional gehiagoren beharra eskatzen du. Gaur egun, osasunean bizi dugun berehalakotasunaren kultura honetan “arazo” bat suposatu dezake bereziki problema bakoitzari erantzun azkar eta berehalakoa eskatzen baitiogu eta errebisioan erabilitako ikerketetan ikusi bezala interbentzio hauek ez dira saio bakarrean oinarritzen.

Artikulu batzuetan gainera erizainaren irudia presente egon da, osasun profesionalaren figura errepresentatuz. Erizainok hasieran aipatu bezala, “Animaliekin lagundutako terapia (4320)” NIC-aren bitartez landu ditzakegu interbentzioak baina hau ez da Erizaintzako diagnostiko zehatz baten barruan terapia nagusi bezala aurkitzen. Ikusi dugunez, animalien bitartez osasun mentalean eragin dezakegu, beste esparruetan bezala, horregatik interesgarria izango litzake honen aplikazioa esparru gehiagotara zabaltzea. NANDA-NOC-NIC liburuan ikusi daitekeen bezala, terapia honekin lortu daitezkeen NOC-en artean “Desarrollo: Adulto mayor (0121), Severidad de la soledad (1203), Equilibrio emocional (1204), Deseo de vivir (1206), Nivel de depresión (1208), Autocontrol de la depresión (1409)” eta beste horrenbeste landu ditzakegu. Kontutan izanik zer emaitza lortzen dugun terapia honekin interbentzio hau beste hainbat NANDA-tara zabaldu daiteke non orain aipatutako NOC-ak nagusiak diren horietan, hala nola, “Aflición crónica (00137)”, “Baja autoestima crónica (00119)” edo “Desesperanza (00124)”(39,40).

LIMITAZIOAK ETA ZAILTASUNAK

Gai honi buruzko literaturaren errebisioa egitea aukeratu zenean aurretik jakinak zen hainbat muga egongo zirela.

Aurkitutako lehena eskuragarri zegoen literaturaren eskasia izan da. Datu base eta aldizkarietan bilaketak gauzatzerakoan, urriak ziren bertan lortutako artikulak, batez ere argitarapen data finkatu eta gero, non ahalik eta errebisio gaurkotuena lortzeko 10 urteko muga tarte finkatu zen, artikulurik zaharrenak 2010.urtekoak izanik. Honek material ugari atzean utzi zuen, erabilgarriak izan litekeen hainbat artikuluzuzenean baztertu. Honi gehitu behar zaio lan honen helburua sintoma depresiboak hobetzera zuzendua dagoela egoitza geriatrikoetako egoiliarren artean, non lana askoz ere zailagoa bilakatu duen, izan ere animaliekin lagundutako terapiari buruzko aipamena egiten zuten artikuluzuzenean baztertu behar izan ziren ez baitzion helburuari erantzuten. Gainera, lortutako materialaren artean, errebisioak aurkitu ziren non hauetako gehiengoak erabilitako artikulak jada lan honen helburuari erantzuteko hautatutako entseguak ziren, hauek baztertuak izanik informazioa ez errepikatzeke, edota errebisioa garatzeko erabilitako lanak 2010.urtekoak baino zaharragoak zirenez, kanporatuak izan ziren lanaren gaurkotasuna mantentzeko. Beraz, material eskasiaren aurrean konbinaketa ekuazio ugari gauzatu behar izan dira datu base ezberdinetan, helburua justifikatzeko nahikoa artikuluzuzenean izateko.

